



ARBOLA

*Bost hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize mehean
Zenbat gelditzen (dira)? 4*

*Lau hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize firfiran
Zenbat gelditzen (dira)? 3*

*Hiru hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize hegoan
Zenbat gelditzen (dira)? 2*

*Bi hosto arbolaren gainean
Bat airatu da haize boladan
Zenbat gelditzen dira? 1*

*Hosto bat arbolaren gainean
Bat airatu enbata haizean
Batere ez da gelditzen...*

(eskuak irekirik, hosto bat erortzen den aldi guzietz erhi bat beheiti)

ARBOLA

MUNDUAREN EZAGUTZA

Objektuen ezagutzea, izendatzea, sailkatzea, deskribatzea, erkatzea, dituzten ezaugarrien arabera

(Fitxak)

Ttipiak / PS

- Berdinak diren hostoak lot itzazu (1. fitxa).
- Hosto bakoitzaren azpian hosto berdina kola ezazu (2. fitxa)
- Berdinak diren hostoak kolore beraz margo itzazu (3. fitxa).

Artekoak / MS

- Hosto bakoitza bere itzalari lot iezaiozu (4. fitxa)
- Eredua lerro bakoitzean margo ezazu. Ondotik, ereduan agertzen den hosto berdina margo ezazu (5. fitxa).
- Arbolak ttipienetik handienera sailka itzazu (6. fitxa).
- Hostoak sailka itzazu, lauki bakoitzean hostoek elkarren eite izan behar dutela kontuan hartuz (7. fitxa).

Handiak / GS

- Bi irudien arteko zazpi ezberdintasunak atzemazkizu (8. fitxa).
- Hostoak handienetik ttipienera sailka itzazu (9. fitxa).
- Ondoko irudiak sailka itzazu lau lauki horietan, lauki bakoitzeko elementuek eite izan behar dutela kontuan hartuz (10. eta 11. fitxak).

HAUTEMATEA, NABARITZEA, IRUDIKATZEA, SORTZEA

Jestua baldintza materialei egokitzea (tresnak, euskarriak, materiala)

(Fitxak)

Ttipiak / PS

- Udazkena da! Hostoak lurrera zuzen erortzen dira. Hostoen bidea marraz ezazu (12. fitxa).

Artekoak / MS

–Hostoak itzulika erortzen dira! Hostoen bidea marraz ezazu (13. fitxa).

Handiak / GS

–Hosto bakoitzaren beste erdia marraz ezazu (14. fitxa).

Tindua eta margotzea, adierazteko eta irudikatzeko erabiltzea

Ttipiak / PS

–Udazkeneko hostoa tinda ezazu (15. fitxa).

Artekoak / MS

–Udazkeneko arbola apain ezazu. Hostoak marraz itzazuerhia tinduan bustiz (16. fitxa).

Handiak / GS

–Hostoak margo itzazu, udazkeneko kolorez (16. fitxa).

Kantuen gogoan hartzea eta kantatzen jakitea

*Arbolatik hostoa (Marijane kanta zan!, Oskorri)
Haizea (Kantiruri, Pantonika Solorzano).*

MUNDUAREN EZAGUTZA

Biziaren agerpenen ezagutzea, materiaren ezagutzea

- Udazkenaren ezaugarriak lant. Urtaro horri doakion hiztegia gogoan atxiki behar dute.
- Haizeen izenak ezagut.

Bost zentzumenei eta haien funtzioei ohartzea

- Entzumenaren lantzeko: haize soinu zenbait entzun (haize goxoa, haize azkarra, haizearen marruma)
- Hunkimenaren lantzeko, esku-kantuño hau udazkenean balia daiteke eta irakasleak edo ikasleak gelara ekarri uztak erabil. Adibidez, Kim jokoa antolatuz: gauzak oihal baten azpian gorde, eta haurrak hunkituz bakarrik zer den asmatu behar du.

Objektu tekniko arrunten ezagutzea eta haien funtzionamenduaren eta erabileraren ulertzea

Haizearen indarraz ohartzeko, paperezko haize errota eraiki eta ufatuz itzularaz, lumetan ufa eta gauza arinak hatsaz mugiaraz.

Zenbaki zerrendaren ezagutzea, zifren ezagutzea, kantitate baten zenbatzea zenbakien ahozko segida erabiliz, kantitate buruketen ebaztea

(Trebatzeko jokoa)

Aitzinka	Gibelka
Bat	Bost
Bi	Lau
Hiru	Hiru
Lau	Bi
Bost	Bat

- Zenbaketa (lehen jokoa):

–Irakasleak zenbaki bat erran behar du eta ikasleek, galdegin bezainbat erhi erakutsi behar dute. Joko bera egin daiteke domino kartak erabiliz. Gauza bera, ikasleak bere lagunei galdeginez.

- Zenbaketa (bigarren jokoa):

–Irakasleak zenbaki bat erran behar du eta ikasleek kopuru horri dagokion gauza kopurua ekarri behar dute. Gauza bera, ikasleak bere lagunei galdetuz.

- Zenbaki bat gorde:

–Irakasleak bost (edo hamar) arte kontatuko du eta ikasleekin, zenbaki baten baztertzea erabakiko. Zenbaketa denak errondan ezarriz egin daiteke (ikasle bakoitzak aldizka zenbaki egokia eman behar du).

- Zenbaketa mutuaren jokoa:

–Irakasleak: "bat, bi, (isilik), lau bost..." Ikasleek isiluneak bete behar dituzte zenbaki egokia erranez.

(Fitxak)

Ttipiak / PS

–Lehen arbolak hosto anitz ditu, marraz itzazu. Bigarrenak guti ditu eta hirugarrenak ez du batere hostorik. (17. fitxa)

Artekoak / MS



- Arbolan, zenbakiak adierazten duen bezainbat hosto kola itzazu. (18. fitxa)
- Hosto multzoaren azpian, behar den zifra kola ezazu. (19. fitxa)
- Zifra bakoitza, arbola multzo egokiari lot iezaiozu. (20. fitxa)

PROIEKTUAK

- Ateraldi bat egin oihanera udazkenaz hitz egiteko eta uzten ezagutzeko. Loto, domino edo *memory* jokoak fabrika hurrekin, gero gelan jostatzeko.
- Udazkeneko arbolen inguruan, arte erakusketa bat antola.

Udazkeneko hostoak: hosto berdinak elkarri lot.
-ikusmenaz bereiztea-















Udazkeneko hostoak: hosto bakoitza haren itzalari lot.
-ikusmenaz bereiztea-









Matematikak



Gaitasuna: Objektuen sailkatzea.






Agindua: Hosto guziak laukietan kola itzazu.


Lauki bakoitzean hostoek elkarren eite ukan behar dute.




Zein dira 7 desberdintasunak ?













Udazkena: Hostoak itzulika erortzen dira.
-grafismoa-















■	
■	
■	
■	
■	
■	
■	
■	
■	

